



2019

PIRINIOETAKO
ESKOLARTEKO
I. MIKROIPUIN
LEHIAKETA



PIRINIOETAKO ESKOLARTEKO

I. MIKROIPUIN LEHIAKETA

Gaia librea da.

Honela aurkeztu daiteke: paperean, audioan eta bideoan.

1. Baldintzak:

- Mikroipuina euskaraz izanen da.
- Jatorrizkoa eta argitaratu gabea izan behar du.
- Mikroipuinak, gehienez ere, 100 hitz izanen ditu.
- Egile bakoitzak ezin izanen du lan bat baino gehiago aurkeztu.
- Idatzita aurkeztuz gero, orrialde bakarrean izan behar da.

2. Kategoriak:

- LH 3-4
- LH 5-6
- DBH 1-2
- DBH 3-4

3. Non eta nola aurkeztu

Audio edo bideo euskarrian aurkezteko, Eskolako Zuzendaritzarekin hitz egin behar da.

Idatzita aurkeztuz gero, irakasleari eman behar zaio. Bi gutun-azal behar dira:

- Lehenengoa: kanpoan ezizena eta ikasmaila idatzi, eta barnean mikroipuina eta bigarren gutun-azala sartu.
- Bigarrena: kanpoan ezizena eta ikasmaila idatzi, eta barnean izen-abizenak, helbidea, telefonoa, ikastetxea eta ikasmaila.

5. Noiz aurkeztu

2019ko apirilaren 12a baino lehen.

6. Epaimahaia

Honakoek osatuko dute: euskara teknikariek eta literatura gaietan aditu/zaletu diren bi lagunek. Epaimahaiak lanen hautaketa bat egingen du. Ondoren, Eskoletako ikasleek mikroipuin hautatuak irakurri (nork bere kategoriakoak) eta bozketa bidez erabakiko dituzte lanik onenak.

7. Sariak

Mikroipuinak kategorien arabera sailkatuko dira eta ondoko sariak banatuko dira:

- LH 3-4: erosketa-txekea
- LH 5-6: erosketa-txekea
- DBH 1-2: Scape Room baterako bonuak
- DBH 3-4: Scape Room baterako bonuak

8. Ebazpena eta sarien banaketa

Ebazpena eta sarien banaketa 2019ko ekainaren 6an egingen da, Pirinioetako Eskoletako ikasleen Topaketan.

9. Saritutako lanak Mendixuten argitaratuko dira

10. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.

Antolatzaileak:

Pirinioetako euskara zerbitzuak eta eskolak